Gure bideak

Ikusgelan, Mari Luz Estebanen bizitzari buruz eta haren ibilbideari buruzko bideoa egin dute. Bideoa ikusita, inspiratzaile izan zaizkigun pertsonei buruz arituko gara.

Sekuentzia honetan, hau egin dezakezu:

- **Famatu bati buruzko datuak emanda, nor den asmatzera jolastu.**
- **Ikusitakoaren gaineko ulermen-galderei erantzun.**
- **Biografia aztertu: aditzak, denborazko adierazleak eta kontaketa.**
- **Inspiragarri izan zaigun norbaiti buruzko biografia idatzi.**



chiamaka-nwolisa-uY_bycsYGzQ-unsplash

Ikusi aurretik

BAKARKA

1. Zergatik famatu?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Idatzi iruzkin bat foroan, eta eman pertsona ezagun bati buruzko datu esanguratsuak 5-6 esalditan. Irakurri kideek idatzitakoak, eta, iruzkinei erantzunda, saiatu asmatzen nori buruz ari diren.

Kontuan izan pertsona horrek kide guztientzat izan behar duela ezaguna, eta mota honetako datu esanguratsuak eman ditzakezula:

- Non jaio zen /non bizi izan den.
- Nolakoa den.
- Zer-nolako bidea egin duen: ikasketak, kirol-/musika-ibilbidea, lanbidea...
- Zer oztopo gainditu behar izan dituen.
- Zertan nabarmendu den eta/edo zergatik.
- Zer dela-eta ezagutu beharko genukeen.
- ...

Feedbacka ikaskideek emango diozue elkarri: ea asmatzen duzuen zein diren pertsonaia horiek!

BAKARKA

Ikusi bitartean

2. Zer diote Mari Luz Estebani buruz?

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Ikusi bideoa, eta erantzun galderei.



mundua ulertzeko bideoak ikusgela

Mari Luz Esteban bio

1. Nor da Mari Luz Esteban?

a) Euskal antropologo, idazle eta pentsalari feminista da, genero-rolak eta maitasuna ikertu dituena.
b) Euskal Herriko Unibertsitatean fisika irakasle izan zen zientzialaria da.
c) Adimenaren garapena ikertu duen zientzialaria eta kazetaria da.

2. Zein ondorio atera daiteke Estebanek Basaurin egindako lanari buruz?

a) Orduko lanak ez du harreman esturik izan ondorengo ikerketa-lanekin.
b) Praktika klinikotik jasotako esperientzia ikerketarako abiapuntu bihurtu zen.
c) Lanean eskuratutako esperientziak feminismotik aldendu zuen.

3. Nola uztartu ditu Estebanek medikuntza eta antropologia?

a) Emakumeen osasun-beharrak ikuspegi antropologikotik aztertu ditu.
b) Literatura-lanetan bi diziplinei buruz idatzi du.
c) Osasungintzan aritu zenean hainbat antropologorekin aritu zen lanean.

4. Nor izan zen Teresa del Valle?

a) Osasun-antropologian aitzindaria, eta Estebanen ikerketa-lerroaren sortzailea.
b) Estebanen doktorego-lanaren orientatzailea.
c) EHUko ikerlan feministetan, lankide nagusia.

5. Bideoan zein informazio nagusi ematen da Mari Luz Estebani buruz?

a) Haren literatura-ibilbidearen azterketa sakona.
b) Feminismoaren ikuspegitik, emakumeen eskubideen alde egindako ibilbidea.
c) Haren pentsamendu akademikoaren eta bizitza-ibilbidearen arteko lotura.

Erantzun zuzenak 6. orrialdean daude.

TALDEAN

Ikusi ondoren

3. Erreparatu

Elkartu hiruko taldeetan; irakurri arretaz transkripzioa eta erantzun galderei.



evgeni-tcherkasski-SqsbTuo5jP0-unsplash

1. Zein testu-genero dela esango zenukete?

2. Zuen ustez, zer helburu du testuak? Zertarako sortu dute?

3. Zer motatako / zeri / nori buruzko informazioa edo datuak ematen dituzte? Erreparatu informazio horri, eta esan zer deskribatzen den.

4. Kontaketa nola dago eginda: ordena kronologikoari jarraituta, ala saltoak emanda? Zer erabili dute horretarako? (Azpimarratu denborari erreferentzia egiten dioten hitzak)

5. Zer aditz-denbora erabili dute? Zertarako? (Azpimarratu aditzak, eta erreparatu erabilerari)

Erantzun zuzenak 6. orrialdean daude.

TALDEAN

4. Biografia osatzeko

Hiruko taldeetan zaudetela, bilatu Mari Luz Estebani buruzko informazioa sarean, jaso bideoaren transkripzioan agertzen ez den datu/informazio esanguratsuren bat, eta idatzi paragrafo bat biografia osatzeko.



quilia-Ak5c5VTch5E-unsplash

GALDERA: zer hartu behar izan duzue kontuan zuen paragrafoa egoki txertatzeko lehengo biografian? Zergatik?

Partekatu galderaren erantzuna talde handian. Feedbacka irakasleak emango dizue.

BAKARKA

5. Inspiratzailea

Ariketa hau etxean egin dezakezu. Idatzi inspiratu zaituen norbaiten biografia. Zaindu testu-generoaren ezaugarriak (biografiarenak), aditzak eta denbora-markatzaileak.

Inspiratzailea izan zen



Adimen artifizilak sortutako irudia

TESTUINGURUA

Denok dugu norbait bizitzan inspiratu gaituena; ez du zertan famatua edo ezaguna izan. Askotan, gertukoenek izaten dute eraginik handiena gugan: aitona-amonak, irakasle edo ikaskideren bat, herrian/auzoan nabarmendu den norbait, eredugarria iruditu zaizun edonor...
Idatz ezazu pertsona inspiratzaile horren biografia, 150 bat hitzetan, euskaltegiko blogean argitaratzeko.

LAGUNGARRIAK

— Non eta noiz jaio zen? Zer garaitan? (Deskribatu)
— Zer bide hartu zuen bizitzan? (Kontatu kronologikoki)
— Zein une izan zen giltzarria haren ibilbidean? Zer zailtasun gainditu behar izan zuen?
— Gaur egun, zertan dihardu?
— Zergatik inspiratu zaitu?

OHARRA: biografia egin aurretik (hautatutako pertsona gertukoa bada), elkarrizketa egin diezaiokezu. Horrela, errazagoa izango da haren biografia idaztea.

Feedbacka irakasleak emango dizu. Nahi izanez gero, irakaslearen feedbacka jasotakoan, idatzitako biografiak kideen aurrean aurkez ditzakezue, edo biografiaren bideoa egin.

ERANTZUNAK

2. Zer diote Mari Luz Estebani buruz?
1- a, 2- b, 3- a, 4- b, 5- c

3. Erreparatu
Mari Luz Estebani buruzkoa eta antzeko testuak **testu biografikoak** dira. Biografien **helburua izaten da pertsona baten bizitzaren, ibilbide profesionalaren... berri ematea** eta egindako lana goraipatzea. Horietan, **pertsona baten bizitza edo ibilbide profesionala... kontatzen da,** eta, gehienetan, **narrazioa kronologikoa da izaten da;** hau da, pertsonaiaren jaiotzatik heriotzara bitartekoak kontatzen dira, modu linealean. **Horretarako, denborazko testu-antolatzaileak eta daten aipamenak** egin ohi dira. Gure testuan honakoak daude: *1959an jaio zen*, *haurra zela*, *garai hartan*, *12 urtez*, *1984tik hasita*, *gero*, *1993an*, *geroztik* eta *gaur egun*.
Bestalde, biografiaren zatirik handiena **iraganeko kontaketa izan ohi denez**, **aditz gehienak iraganean** egoten dira, **ez bada gaur egungo egoera/ibilbideari erreferentzia egiteko; kasu horretan, orainaldian** egon ohi dira. Testuan argi ikus daiteke narrazio kronologikoa egiteko aditzak iraganean daudela, aurkezpen-paragrafoan salbu. Gaur egun Mari Luz zertan ari den adierazteko, ostera, orainaldiko aditzak erabili dituzte.

Testu biografikoetan, **honako datu hauek jaso ohi dira:**
- Ibilbide pertsonala/profesionala.
- Pertsonaiak bizi izandako garaiaren ezaugarriak eta datu historikoak: lekuak, gertakizun esanguratsuak, ohiturak, egoera zehatzak...
- Pertsona hori zertan nabarmendu den aipatzen da.

4. Biografia osatzeko
Kronologikoki non kokatu hartu behar da kontuan, eta aurreko eta ondoko testuarekin nola lotu ondo aztertu (denborazko testu-antolatzaileak). Bestalde, aditz-denbora zaintzea ere komeni da, kontraesanik sor ez dadin.

HIZTEGI LAGUNGARRIA

Pentsalari bat. Adimena erabil behar den jardueretan dabilena. Intelektuala.
Ikuspegi garaikidearekin. Gaur eguneko ikuspegiarekin, ikuspegi modernoarekin.
Frankismoaren kode moralaren arabera izan zen hezia. Frankismoaren balioak jaso zituen etxean.
Gerturatu zen feminismora. Hurbildu zen feminismora, hasi zen gai horretaz kezkatzen.
Zenbateko garrantzia duen. Garrantzi handia du.
Ikerlerro horietan. Ikerketa bat egiteko hartzen den bidea.
Eraman du bere begirada. Jarri du arreta, landu du.

TRANSKRIPZIOA

Zer da maitasuna? Hartzen ditugun erabakiak baldintzatzen ditu? Badu eraginik gure gizartearen antolaketan? Ez da oso urrun jo beharrik galdera horien erantzunen bila aritu den pentsalari bat aurkitzeko. Mari Luz Esteban idazle eta antropologoak feminismotik edaten duen ikuspegi garaikidearekin begiratu dio, besteak beste, maitasunari. Genero-rolek gure gizartean duten funtzioa arakatu duen pentsalari erreferentziazkoa da.

1959an jaio zen Mari Luz Esteban, Burgoseko Pedrosa de Valdeporres herrian. Frankismoaren kode moralaren arabera izan zen hezia, adimenaren garapena lehenetsi, eta gorputza bigarren planoan uzten zuen testuinguru familiarrean. Haurra zela, Euskal Herrira etorri zen bizitzera. Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen medikuntza-ikasketak, eta garai hartan gerturatu zen feminismora lehen aldiz, Basauriko Talde Feministaren bitartez.

Basaurin bertan 12 urtez egin zuen lan familia-plangintzako mediku gisa, 1984tik hasita. Bere mediku-lanean zein ibilbide militantean bizitakoak ikerketara eraman zituen gero. Medikuntzan eta osasun-arloan emakumeen beharrak identifikatu zituen, eta ikertu zuen osasungintza horien arabera antolatzeak zenbateko garrantzia duen.

1993an defendatu zuen tesia Bartzelonako Unibertsitatean. Teresa del Valle izan zuen tesi-zuzendari, eta lan horrekin hasi zen ”osasun-antropologia” esaten zaion eremuan murgiltzen. Geroztik, antropologiaren ikerkuntzari eta irakaskuntzari eskaini dio (die) bere lana.

Gaur egun, EHUko unibertsitatean (EHUn) egiten du lan. Bertan aurkitu zuen (zituen) antropologia feministan sakontzeko lantaldea eta giro aproposa; ikerlerro horietan sakontzen duen AFIT taldeko koordinatzailea da.

Ez irakaskuntzara eta ikerketara bakarrik, literaturara ere eraman du bere begirada; poesiara, hain zuzen. Hiru poema-liburu argitaratu ditu: Amaren heriotzak libreago egin ninduen, Andre zaharren manifestua eta Haragizko erreformak.